


## EAEko ekonomia %4,3 hazi zen bigarren hiruhilekoan

EAEko BPGaren bilakaera  
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu dituen kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %4,3 hazi zen bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundera %0,9 izan zen. Enpleguari dagokionez, urte arteko tasa %3,7 izan zen eta hiruhi-leko artekoa, berriz, %0,8.

## EAEko esportazioak %50,5 handitu ziren

Atzerrira esportatutako ondasunak  
Urte bakoitzeko maiatza. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Maiatzean, atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %50,5 gehitu ziren aurreko urtearen aldean. Igoera horren zati handi bat prezioen igoerari zor zaio, baina saldutako kopurua ere aurreko urtekoa baino askoz handiagoa izan zen. Inportazioak, bere aldetik, %50,3 areagotu ziren.



## Industriaren negozio zifra %41,3 handitu zen

Industriaren negozio zifra  
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea




Iturria: INE.

**Maiatzean, industriaren negozio zifra %41,3 hazi zen aurreko urteko emaitzaren aldean.** Horri esker, maiatz batean inoiz erregistratu den mailarik altuenean dago kokatuta indizea, pandemiaren aurreko urteetan lortutako balioen oso gainetik.

## Zerbitzuen negozio zifra %23,6 hazi zen

Zerbitzuen negozio zifra  
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea



Iturria: INE.

**Zerbitzuetako negozio zifrak %23,6 egin zuen gora maiatzean, urte batetik bestera.** Mailari dagokionez, aurtengo emaitza serie historikoko altuena da. Bestalde, sektoreko enplegua %2,7 hazi zen, aurreko hiletan baino ehuneko handiagoa baita.